

SAKANAKO HIRI HONDAKINEN

ESTRATEGIA

de residuos municipales de Sakana

2025-2035



Financiado por el
Fondo de Residuos
Hondakinen Funtzak
finantzaturia



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Mank
s a k a n a

[EUS]



AURKIBIDEA

1 laburpena	2
2 zergatik jardun behar dugu?	5
3 zein da gure ikuspegia?	9
4 glosarioa	16



1 LABURPENEA

Sakanako Hondakinen Estrategiak datozen 10 urteetan Sakanako herritarrek, komertzioek eta enpresek sortutako hiri hondakinak nola kudeatuko ditugun zehazten duen esparrua ezartzen du.

ZER DA HONDAKINEN ESTRATEGIA BAT ETA ZERGATIK BEHAR DUGU?

Estrategia honek hondakinak kudeatzeko zerbitzu eraginkorra emateko moduari buruzko ikuspegi berri bat ematen du. Europako, estatuko eta eskualdeko legediarekin bat etorritik, estrategia honek gure ikuspegia ezartzen du sortzen ditugun hondakinen eragina murrizteko, gure ikuspegiaren arazoak eta gure ekintzen printzipioak azaltzen ditu eta lortzen ahaleginduko garen helburuak zerrendatzen ditu.



Sakanako Mankomunitatea 15 udalerrik eta 16 kontzejuk osatzen dute, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: Kirola, Euskara, Anitzartean, Eraikinen Zaharberritze Bulegoa, Berdintasuna, garapen sozioekonomikoa, Ura eta Hondakinak. Helburuetako bat da hondakinen kudeaketa jasangarria lortzea eremu geografiko osoan.



GURE ESTRATEGIA

Estrategia hau ezartzeko beharrezkoa da hainbat eragileren konpromezua: Sakanako Mankomunitatea, herritarrak, komertzioak, enpresak, udalak, ikastetxeak...

Ezinbestekoa da eragile guztien arteko elkarlana hiri hondakinak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezagun. Horretarako, funtsezkoa da ekonomia zirkularraren printzipioa barneratzea, honek gure hondakinak minimizatzea eta gehiago birziklatzea baitakar.

Sakanako Mankomunitateak zerbitzuen diseinua eta eskaintza koordinatuko ditu estrategia honen ikuspegia eta helburuak lortzeko.

Herritarrei, komertzioei eta enpresei lagunduko diegu hondakinak murriztu eta gehiago birziklatu ditzaten.

GURE IKUSPENA

Zero Hondakin Sakana izan nahi dugu. Elkarlanaren bidez sortzen dugun hondakin kopurua murriztuko dugu, ingurumena babestuko dugu eta baliabide naturalak eta materialak zainduko ditugu.

GURE IKUSPEGIA

Ekonomia zirkular bateranzko trantsizioa

Sakanan ekonomia zirkularraren ereduaren aplikazioak eskaintzen dituen aukerak eta onurak aprobetxatuko ditugu.

Hondakin hierarkia aplikatzea

Prebentzioa, berrerabilera eta birziklapena lehenetsiko dituzten zerbitzuak diseinatuko ditugu.

Lankidetzeta eta berrikuntza

Administrazioak, herritarrek, komertzioek eta enpresek elkarrekin lan egingo dugu hondakinak kudeatzeko sistema iraunkorrago bat sortzeko.


Hezkuntza eta parte-hartzea

Administrazioari, herritarrei, komertzioei eta enpresei hondakinak murrizten eta gehiago birziklatzen laguntzeko informazioa eta ekimenak eskainiko ditugu.



GURE HELBURUAK

Mankomunitatea konprometituta dago araudiak gutxieneko estandar gisa ezarritako helburuak lortzearekin, baina haratago joan nahiko genuke gure ingurunean eragin positibo handiagoa azkarrago izateko.



Mankomunitateak ekintza planak sortuko ditu, helburuak betetzeko zerbitzua eta komunikazioa nola garatu nahi ditugun zehazteko. Aurrerapenari eta jardunari buruzko eguneratzeak argitaratuko ditugu. Gainera, estrategia hau 2030ean berrikusiko da, eraginkorra izaten jarraituko duela bermatzeko.



2 ZERGATIK JARDUN BEHAR DUGU?


Sakanan hondakinen kudeaketan hobekuntzak planteatzen ari gara gure helburuak betetzeko, ingurumenarekiko eragina minimizatzeko diseinatuak.

KLIMA-ALDAKETA

Erronka klimatiko garrantzitsu bati egin behar diogu aurre. Berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko lan egin behar dugu.

Hondakinen sorrera prebenitzeak, produktuak berrerabiltzeak eta materialak birziklatzeak baliabideak aurrezten eta isurketak murrizten ditu.

Erabaki desberdinak hartu behar ditugu gure kontsumitzeko ereduaren inguruan eta hondakinak kudeatzeko moduaren inguruan erronka honi aurre egin ahal izateko.





EKONOMIA ZIRKULARRA

Inpaktua murrizteko modurik onena ekonomia zirkularranzko bidean aurrera egitea da. Eredu honetan, gure baliabide finituak kontserbatzen dira eta modu eraginkorrean erabiltzen dira.

Produktu gehienak oraindik ekonomia linealaren eredua erabiliz diseinatzen eta sortzen dira. Eredu honetan, baliabideak atera, fabrikatu, erabili eta bota egiten dira.


Birziklapenaren ekonomiarantz egin dugu aurrera, baina ekonomia zirkular baterako trantsizioak eskatzen du pertsona guztiok berriz aztertzea nola baloratzen eta kudeatzen diren baliabideak eta gure kontsumo-ohiturak kontzienteagoak izatea, iraunkorrak izateko diseinatutako produktuak lehenetsiz, bizitza baliagarriaren amaierara iristen direnean birziklatu ahal izateko.

LEGEDIA

Azken urteotan politika eta legedi berriak sartu dira, eta garrantzitsuenak Hondakinen eta haien Fiskalitateari buruzko 2018ko Foru Legea eta Ekonomia Zirkularra, Lurzoru Kutsatuak eta Hondakinen Legea, 2022koa.

Lege hauek hondakinen kudeaketa arautzen dute eta ekonomia zirkular baten onurei probetxua ateratzen laguntzeko hainbat neurri zehazten dituzte, besteak beste:

- Prebentzioa lehenestea
- Hondakin mota jakin batzuk bereizita biltzeko betebeharra
- Ontziak ekoizten dituzten industrien betebeharrak, beren produktuen ingurumen-inpaktuagatik erantzukizun handiagoa har dezaten eta erabilera bakarreko produktu mota batzuk debekatu ditzaten
- "Kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa babesteko neurri fiskalak, errausketa edo zabortegira eramandako hondakinentzako zerga bat sartzea barne.





PERTSONAK ETA BIZIMODUAK

Sakandarrek gero eta kezka handiagoa adierazi digute klima-aldaketagatik eta ingurumenagatik, eta enpresek benetako aldaketak egin ditzaten eskatzen dute herritarrek, hondakinak murrizten laguntzeko.

Gainera, interneten egindako erosketen gorakadak sortutako hondakinen mota eta kopurua aldatu ditu, batez ere plastikozko eta kartoizko ontziena.

Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea nola eragin dezakeen biztanleriaren zahartzeak hondakinen bilketan eta kudeatu behar ditugun hondakin motetan, erabiltzen ditugun komunikazio bidez gain.

Hondakinen kudeaketarekin lotutako zerbitzuek joera horiei eta jarreraren eta portaeren aldaketei erantzun behar diete.

Horrek ingurumen-inpaktua eta hondakinen kudeaketaren kostua murrizten lagunduko digu.



HONDAKIN GEHIEGI SORTZEN DUGU

Araudiak 2027rako ezarritako helburua bete badugu ere, hau da, gure hondakinen % 50 gutxienez gaika biltzea, oraindik ere material birziklagarriak errefusarekin nahasten dira hein handi batean. Urtero Tuterara garraiatzen dugun 4.000 tona errefusean, 550 tona baino ez dagozkio frakzio horri (gainerakoa birziklatu egin daiteke).

Guztira, Sakanako biztanle bakoitzak batez beste 456 kg hondakin sortzen ditu urtean. Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa bada ere, kopuru handiegia da oraindik ere, eta ingurumen, gizarte eta ekonomian eragin oso handia du honek.

Funtsezkoa da, beraz, arazoari heltzea eta prebentzioari eta berrerabilerari garrantzi handiagoa ematea.





KOSTUA ETA IRISGARRITASUN EKONOMIKOA

Hondakin gutxiago sortzen baditugu, edo berrerabiltzen baditugu, hondakinen kudeaketarekin lotutako kostua murriztu egiten da.


Sakanan sortutako hiri hondakinen kudeaketak ia 3 milioi euroko kostua dauka urtean.

Errefusa tona baten kudeaketak, birziklatzea edo konpostatzera bidaltzen den hondakin tona batek baino kostu haundiagoa dauka, eta gora egingo du etorkizunean.

Hondakinak bereizten ditugunean ez dugu kudeaketa-kostua murrizten, baizik eta kostuaren gorakada hain handia ez izaten laguntzen dugu, dena nahastuta eramatearekin alderatuta.

Gainera, hondakinak zenbat eta nahastuago egon, orduan eta zailagoa da kudeaketa bide bat aurkitzea, horrek dakarren gainkostuarekin.

Legez, hondakinen bilketa eta tratamenduaren kostu guztiak hiruhileko bakoitzean ordaintzen dugun hondakinen tasan sartu behar dira, eta horrexegatik da hain zuzen ere Sakanako pertsona guztien interesekoa hondakinen kudeaketa on batean parte hartzea.



Estrategia hau garatzeko, gure lehentasunak definitzen eta gure ikuspegiaren eta helburuen bideragarritasuna ebaluatzen lagundu duten parametro batzuk hartu ditu kontuan mankomunitateak: hondakinen kudeaketak berotegi-efektuko gasen isurketetan duen eragina, birziklapenarekiko eta hondakinekiko jarrera eta portaera sozialak, Sakanan sortutako hondakin mota ezberdinen analisia, hobekuntza-arloen identifikazioa eta 2024an herritarrei egindako galdeketaren emaitzak.

Galdeketaren emaitzak funtsezko puntu hauetan laburbil daitezke:

- Gure helburuak anbizio handikoak dira, baina elkarrekin lan eginez gero lor daitezke, eta horrela ikusten dute herritar gehienek.
- Herritarrei, komertzioei eta enpresei lagundu behar diegu hondakinak murrizteko eta hondakin gehiago berrerabiltzeko, konponketa eta berrerabilpen tailer, informazio gida eta prebentzio programen bitartez.
- Herritarren artean bereizketa areagotzeko babes handiena duten ekintzak arratsaldean garbiguneak irekitzea, garbigune gehiago eraikitzea eta edukiontzi gehiago jartzea dira.
- Materia organikoaren kaptura haunditzeko, beharrezkotzat jotzen dira pizgarriak, poltsa konpostagarrien doako banaketa eta komunikazio kanpainen inplementazioa. Proporzio esanguratsu batek modu positiboan ikusten du konpost banaketa herriz herri egitea eta "Sakanako Konposta" markaren sustatzea.
- Bai hondakinak birziklatzeko bereizten ez diren kasuetan, bai bide publikoan gaizki uzten direnetan, herritarren gehiengo zehapenak aplikatzearekin ados dago.
- Gehienek nahiago dituzte informazio gidak komunikazio tresna gisa, eta, ondoren, whatsapp bidezko hedapena.



3 ZEIN DA GURE IKUSPEGIA?

Hondakinen kudeaketaren erronkari heltzeko eta estrategia honen ikuspena eta helburuen betetzea lortzeko, gure ikuspegia honako lehentasunetan oinarritzen da:

Ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, non baliabide naturalak modu eraginkorrean erabiliko ditugun

Hondakinen hierarkia aplikatzea, prebentzioari, berrerabilerari eta birziklatzeari lehentasuna emanaz

Lankidetzeta eta berrikuntza hondakinen kudeaketa jasangarriagoa sortzeko

Hezkuntza eta inplikazioa, iritziak entzunez eta sortutako hondakinak murrizteko eta gehiago birziklatzeko informazioa eta ekimenak eskainiz





EKONOMIA ZIRKULARRERANZKO TRANSIZIOA

Aldaketa lortzeko modurik onena hondakinei buruz dugun ikuspegia birpentsatzea eta ekonomia zirkularraren printzipioak hartzea da. Printzipio hauekin, gure baliabide finituak modu eraginkorrean kontserbatzen eta erabiltzen dira. Gainera, ekonomia zirkularreranzko trantsizioak ere aukerak eman ditzake hazkunde berderako eta enplegua sortzeko.


Gure helburua da:



Sakana osoan ekonomia zirkularrerako aldaketan laguntzea. Zero Zabor Sakana izatea

Horretarako, neurri hauek hartuko dira:

- "Sakanako Konposta" marka sustatzea eta udalerrri bakoitzean kanpaina eta banaketa bidez erabiltzea
- Zirkulartasun-irizpideak aplikatzea erosketan publikoaren barruan
- Konponketa sustatzea eta konponketaekin lotutako prestakuntza bultzatzea
- Hondakinen hierarkia aplikatzea





HONDAKINEN HIERARKIA APLIKATZEA

hondakinak kudeatzeko, ingurumenaren inguruko ikuspegirik onena hondakinen hierarkiaren printzipioak aplikatzean datza. Zerbitzuak diseinatzean eta erabakiak hartzean, mankomunitateak hierarkia horri jarraituko dio, prebentzioa lehenetsiz eta hondakinak zabortegian ahalik eta gutxien isuriz.

PREBENTZIOA ETA BERRERABILPENA

Gure helburuak dira




2027an, 2010ean baino % 15 hondakin gutxiago sortzea



2035ean, 2010ean baino % 17 hondakin gutxiago sortzea

Neurriak:

- Herritarrak kontsumo iraunkorraz eta elikagaiak alferrik galtzearen aurkako ekintzez sentsibilizatzea
- Ekitaldietan hondakinak prebenitzeko materiala ematea eta aholkua ematea
- Berrerabiltzeko eta konpontzeko programa finkatzea
- Zero Zabor Komertzioak programaren finkatzea
- TEEHen eta tamaina handiko hondakinen berrerabilera haunditzea





BIRZIKLATZEA

Gure helburuak dira:



**Materia organikoaren % 70 gaika biltzea 2027an,
inpropioek % 10 gainditu gabe**



**Materia organikoaren % 80 gaika biltzea 2035ean,
inpropioek % 10 gainditu gabe**



**2030erako hondakinen % 20 baino gutxiago eta
2035erako % 10 baino gutxiago isurtzea zabortegean**



2035erako gutxienez hondakinen % 65 gaika biltzea

Neurriak:

- Materia organikoa bereizteko azpiegitura eta materialen eskuragarritasuna hobetzea
- Garbiguneak irekitzeko ordutegia aldatzea (arratsaldez)*
- Garbigune finko bat gehiago eraiki
- Eraikin publikoetan hondakinak bereizteko oztopoak identifikatzea eta konponbideak diseinatzea
- Errefusarentzako edukiontzia mugatzea
- Gai birziklagarrietarako edukiontzien kopurua handitzea





ELKARLANA ETA BERRIKUNTZA

Aurrera egiteko eta irtenbideak aurkitzeko modurik onena elkarlana da. Ezagutzak eta esperientziak partekatuz, aldaketa azkarragoa eta eraginkorragoa izatea lortzen dugu.

Ikuspegi partekatuak gure emaitzak hobetzeaz gain, eragin positiboa izateko lan egiteko modu berriak aurkitzea ere ahalbidetzen digu.

Gure helburuak dira:



Legez kanpoko isurketen eta hondakinak uztearen kopurua murriztea



Hondakinekin lotutako eskumenak dituzten Sakanako beste eragile batzuekin lankidetza sustatzea

Horretarako, neurri hauek ezarriko dira:

- Zehapen araubidea aplikatzeko protokoloa eta irudiak kudeatzeko protokoloak eguneratzea
- Mankomunitateko Hondakinen Batzordearen bilerak egitea
- Hondakinak legez kanpo uztea edo isurtzea saihesteko lankidetza eta prestakuntza aukerak identifikatzea





HEZTEA ETA INFORMATZEA

Herritar, komertzio eta enpresei laguntzea, jarrera aldaketak inspiratzeko, pertsonak ahalduz lagunduz, gure ikuspegia lortzeko funtsezko portaera berriak har ditzaten.

Gure helburua da:



Iritziak entzutea eta informazioa eta ekimenak eskaintzea herritar, komertzio eta enpresei hondakinak murrizten eta gehiago birziklatzen laguntzeko

Lehentasun hau betetzeko, mankomunitateak honako neurri hauek hartuko ditu:

- Herritarrekin, komertzioekin eta enpresekin aldi-aldi elkarreragitea, hondakinak prebenitzeko eta birziklatzeko oztopoak ulertzeko
- Herritarren iritziak eta jardunbide onenak kontuan hartzea zerbitzuak diseinatzean
- Hondakinen konposizioa (karakterizazioak) aldi-aldi aztertzea, baita gaikako bilketa zerbitzuak duen parte-hartze maila ere. Horrek zerbitzuak diseinatzen eta ekimenak zuzentzen lagunduko du
- Gure eremu geografiko osoan portaera aldaketa inspiratzen eta ahalbidetzen duten kanpainak ezartzea
- Ikastetxeekin, elkarteekin eta Sakanako beste eragile batzuekin lan egitea, bizitzan zehar hondakinak prebenitzeko jokabideak inspiratzeko
- Ingurumena zaintzeko ekintza komunitarioa babestea



JARDUNAREN IKERKETA, PLANGINTZA ETA JARRAIPENA

Estrategia hau 2030ean berrikusiko da, gure aurrerapena ebaluatzeko eta helburuak Nafarroako Hondakinen Plan berriak egingo dituen aldaketekin gauzatzeko. Gainera, litekeena da politika eta araudi berriak sortzea, gure hondakinen konposizioan eta bolumenean aldaketak egotea, teknologia berriak eskura izatea edo hondakinekiko dugun jarrera zertxobait desberdina izatea.

Mankomunitateak estrategia hau bideratzeko eranskin sorta bat sortu eta berrikusiko du aldi-aldi. Eranskin horiek mugarririk eta helburuak betetzea nola lortuko dugun zehaztuko dute.

Eranskin-paketeak honako hauek jasoko ditu:

- Hondakin kudeaketa eta ekonomia zirkularraren ekintza plana
- Prebentzio plana
- Komunikazio plana
- Berdintasunaren inguruko eraginaren ebaluazioa

Jarduera monitorizatzeko eta aurrerapenari jarraipena egiteko adierazleak hartuko ditugu, eta urtero argitaratuko ditugu.





4 GLOSARIOA

Klima-aldaketa

Klimaren egoeraren aldaketa bat da, eta aldaketak eragiten ditu meteorologia-ereduetan, eskala globalean eta epe luze batean. Besteak beste, euri patroien aldaketak, itsas mailaren igoera, balizko lehorteak, habitataren galera eta stres termikoa.

Zero Zabor Komunitatea

Zero Zabor komunitatea hondakinen sorrera prebenitzeko eta baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzeko elkartzen den herritar, erakunde eta eragileen taldea da. Bere helburu nagusia materialak alferrik ez galtzea eta elementu kutsakor bihurtzen ez uztea da, ekonomia zirkularren printzipioak jarraituz.

Ekonomia zirkularra

Baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko diseinatutako sistema ekonomikoa da, gutxieneko hondakin kopurua sortuz.

Eliminazioa

Hondakinak tratatzeko eragiketa, batez ere zabortegean isurtzea. Energia berreskuratu gabeko errausketa eliminazio eragiketa ere bada.

Errefusa

Birziklatu daitekeena behar bezala bereizi ondoren geratzen den guztia.

Inpropioak

Hondakin gai bat behar bezala birziklatzea zailtzen edo eragozten duten materialak dira, ez datozelako bat bildutako frakzioarekin (adibidez, plastikozko jostailu bat edukiontzian, ontzi arinetarako baino ez dena).

Hondakinen hierarkia

Hondakinak kudeatzeko moduak Ingurumenarekiko duen inpaktuan oinarrituta, lehenetsi beharreko tratamendu motaren ordena ezartzen duen lege-esparrua da.

Hala, prebentzioa (hondakin gutxiago sortzea) da aukerarik desiragarriena, eta, ondoren, berrerabiltzea eta birziklatzea. Zabortegean isurtzea, aldiz, inpaktu negatibo handiena duen aukera da.

Hondakinen prebentzioa

Substantzia, material edo produktu bat hondakin bihurtu aurretik hartutako neurrien multzoa. Besteak beste, hondakinen kantitatea murriztea, inpaktu kaltegarriak murriztea eta substantzia arriskutsuen edukia murriztea.

Hiri hondakinak

Etxetik edo beste iturri batzuetatik bereizita bildutako hondakinak, baldin eta etxeko hondakinen antzekoak badira izaerari eta konposizioari dagokienez.

Ekoizpenetik, nekazaritzaetik, basogintzaetik, arrantzaetik, hobi septikoetatik, estolderia-saretik eta ura tratatzeko instalazioetatik, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuetatik eta eraikuntza eta eraipen hondakinetatik sortutako hondakinak ez dira hiri hondakinak (obra txikiak izan ezik).



Mank

s a k a n a



Financiado por el
Fondo de Residuos
Hondakinen Funtsak
finantzatua



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

SAKANAKO MANKOMUNITATEA 2025

Hondakin Zerbitzua
UtzubarEKOgunea